

# NOVEMPOPULANIAKO MUGAK

Akitaniarren eremu aurreuskalduna



Antzinako Akitania, K. a. I. mendean (Auguste Longnon, 1885)

Philippe Lartigue

2017

***Nire adiskide eta herrikide gaskoi eta euskaldun guztiei***

# Novempopulaniako mugak

Philippe Lartigue

---

## Jatorria eta konkista

Erromatar idazleen arabera, badakigu herri txiki asko bizi izan zirela itsasoak, Garonak eta Pirinioek osatzen duten hirukian. Plinio-k, Caesar-ek edo Estrabon-ek esan zutenaren arabera, hauek ez ziren batere zeltoak, Garonako beste aldean bizi ziren beren auzokoak bezalakoak. Gaskoinia edo Baskonia izango zenaren lehen aipamenetako bat, Diodoro Siziliarrarena da, Kristo aintzineko 60. eta 30. urteen artean idatzitakoa, Galietako hegomendebaldeko biztanleak, zeltoiberoak zirela esanez. Caesar-ek, bere *Galietako guduaren*<sup>1</sup> iruzkinetan eta baita bere *Gerla Zibilaren* kontakizunean ere, Akitaniarrak deitu zien eta zeltoengandik bereiztuta zirela idatzi zuen, Garonako beste aldetik<sup>2</sup> bizi zirenek. Akitaniarrek, idazle horien guztien arabera, hizkuntza, lege eta ohitura desberdinak zituztelako. Gure garaiko 20. urtean, Estrabon-ek, Garona muga tinko bat zela idatzi zuen, eta gehitu ere zuen ezen Akitaniarrak oso desberdinak zirela, bestelako itxura fisikoa eta hizkuntza zituztelako. Iberoerentzako antza baitzuten<sup>3</sup>. Plinio Zaharrak zioenez gero, populu horien izena, Akitania<sup>4</sup> lurraldea deitzeko erabilia zen. Hau da, Ozeanoren, Pirinioen eta Garonaren arteko lurra. Caesar-en Akitania alegia, lurralde horretan kokatu behar da eta Novempopulania, gero Baskonia ziterior bihurtuko da. Luchaire-k, definizio ona eman zuen bere 1877ko liburuan<sup>5</sup>.

Kristo aurreko 56. urtean, Caesar-ek, Crassus bere tenientea hara bidali zuen, Zelto eta Akitaniarren artean biltzea eragozteko. Hala ere, II. mendeko azken hamarkadetan, Lactoratik, Erromako eraginpean omen zegoena<sup>6</sup>, ekialdeko Akitaniako populuak menperatzen zituen Erromak, hau da Consoranni, Convenae eta Lactorates. Crassus-en garaipena nahiko azkarra izan zen, Kristo aintzineko 56. urteko udazkenean. Adiatuanos-ek, Sotiaten erregeak, amore eman zuen. Baina ez zen erabateko garaipena izan eta Caesar-ek berak, gurera etorri behar izan zuen bost urte geroago<sup>7</sup>, Akitaniarrak akabatzeko asmoan.

39. eta 38. urteetan, Kristo aintzin, Agrippa-k, Akitania Handiaren agintea lortu zuenak, beste gudu bati ekin behar izan zion. Gauza bera gertatu zen 28. eta 27. urteetan, Corvinus

---

<sup>1</sup> Maurice Rat-en liburua irakur daiteke, César, *La guerre des Gaules*, Garnier Flammarion, 1964.

<sup>2</sup> « *Gallos ab Aquitanis Garumna flumen dividit* », « Garonak bereizten ditu Zeltoak Akitanoengandik », Caius Julius Caesar, Galietako Guduaren Iruzkinak, I. liburua, 1.

<sup>3</sup> Estrabon, *Geografia*, IV, 1, François Lasserre, Paris, Les Belles Lettres, 1996, 145. orrialdean.

<sup>4</sup> Baina garai hartan, ezin da jakin Augusto-ren Akitania handia edo Caesar-ena aipatzen ote duen. Ordainez, Pomponius Mela-k, (*De chorographia*, ca 43. Kristo ondoren, III, 2) Pirinio eta Garonaren arteko Akitania horri buruz idazten du.

<sup>5</sup> Luchaire 1877 1. eta 2. orrialdeetan.

<sup>6</sup> Edo, bakarrik, Erromano Probintziarekin kontaktuan zegoena.

<sup>7</sup> Caesar-ek, garaipen osoa lortzen du eta bere 51. urteko « kanpaina » ibilaldia besterik ez da. Garaipen honen bidez, beraren gain ematen du Akitaniako konkista. Bitartean, Licinius Crassus eta bere aita, 53. Kristo aintzin hil dira, Carresen.

Messala-ren txangoarekin. Azkenean, 26. eta 25. urteetan, Kristo aurrean, Augustok, Kantabriarren aurkako gerlarekin batera, benetan amaitu zuen Akitaniako konkista.

Akitaniarrak zigortzekotan, Augustok, Loireraino zabaldu zuen Akitaniako lurraldea, egiazko Akitaniarrak itozteko nahian, Zeltoen erdian. Egiazko Akitaniarrak, gaur egun Aurreeuskaldunak deitzen direnak, gutxiengoan bihurturik, ez ziren arriskutsuak gehiago izaten. Auguste-ren bakea, ongi antolatua, arin hedatu zen. Esan behar da Akitania osoa menperatuta gertatu zela 16. eta 13. urteen artean, kultu berria ezarriz eta erromanizazioa hasiz. Augustok, asimilazio arina aurreikusten zuen horrela.

Baina horrek ez zuen Akitaniarren, gaur egun Aintzineuskaldunak<sup>8</sup> deituak, kontzientzia etnikoa aldatu. Akitaniarrak ez ziren batere ados izan probintzia berri horrekin eta beren burujabetasun pentsaerak, beren kontzientzia etnikoak bultzatu zituen probintzia berezia eskatzera Erromako enperadoreari. Erromatar agintariek bazekiten Estrabon-ek edo Plinio Zaharrak idatzitakoa, ezagutzen zuten Akitaniarren berezitasun etnikoa eta, dirudienez, azken horiek beren estatusa lortu zuten. Augustoren garaitik aurrera, finantzialki eta baita fiskalki ere, antzinaroko Akitaniak bazituen arau desberdinak, beste Akitania Handiaren biztanleengandik, Garonako beste aldetik hedatzen zena eta Zeltoez jendeztatua. Azkenean, bigarren mendearen amaieran edo hirugarrenaren hasieran, Akitaniarrek lortu zuten beren probintzia edukitzea eta iparraldean bizitzen ziren Zeltoengandik bereiztuta geratu ziren. Bereizketa berri bat agertu zen Garonaren hegoaldean, benetako akitaniar populuen berezitasun linguistikoa, kulturala eta etnikoa errespetatzen zituena. Badago, Hazparnen, harri bat, Hazparneko harria deitua<sup>9</sup>, idazki bat daramana eta gertaera hori aipatzen duena. Badugu ere bai zerrenda bat, Verona-rena<sup>10</sup>, 314. urtekoa, hamabi populu zerrendatzen dituen, latinez *novem populi*. Probintzia horrek Novempopulania izena hartu zuen baina *Aquitania tertia* edo *Aquitania propria* ere deitzen zen. Lehenengo bederatzi eta gero hamabi populuz osatuta zegoena. Probintzia honen hiriburua, *Elusa* izan zen, gaurko Eauze (Eusa gaskoieraz). Ziur asko, elkartzeko etnikoa izan zen eta, idazle gehienek arabera, zatiketa berri hori, bederatzi populu hauen nortasun sakona aintzat hartzen zuen. Garai haietako Akitaniarrak, gaur egungo Euskaldun eta Gaskoien arbasoak dira. *Galieta probintzia eta zibitaten oharra* (V. mendea, Kristo ondoren) hamabi hiri zerrendatzen ditu *Provincia Novempopulana* horretarako :

- ***Aquae Tarbellicae***, Akize (*Tarbelli*)
- ***Aturri/Atura***, Aire-sur-l'Adour (*Aturenses*)
- ***Boios***, Lamothe, Biganos eta Le Teichen arteko mugan (*Boiates*)
- ***Conсорanni Sanctus Glycerius***, Saint-Lizier-en-Couserans (*Conсорanni*)
- ***Cossio/Civitas Vasatium***, Bazas (*Vasates* edo *Basates*)
- ***Elimberri, Augusta Auscorum***, Auch (*Auscii*)

---

<sup>8</sup> Anakronikoa litzateke Akitaniarrak gaurko Euskaldunak bezalakoak zirela esatea. Aurreeuskaldun edo Aintzineuskaldun izena, egungo Euskaldunak, Antzinaroko eta Erdi Aroko Baskoi-Akitaniarren aztarnak besterik ez dira. Baskoi eta Akitaniarren antzinako ahaidego sinestekoa, nahasdura sor dezake. Akitaniarrak=Baskoiak=Gaurko Euskaldunak ekuazioa, nahiz eta oso liluragarri izan, sinplifikatze besterik ez da. Ez da erabat okerra baina ez da axioma ere.

<sup>9</sup> II. mendearen amaieran edo IIIaren hasieran, Kristo ondoren. 7. orrialdean.

<sup>10</sup> *Laterculus Veronensis* edo Veronako zerrenda, Erromatar Inperioaren probintzia eta elizbarrutien zerrenda zehatza erakusten du. Diokleziano-ren garaian agertu zen. 314. eta 324. urteen artekoa da.

- **Elusa**, metropoli, Éauze (*Elusates*)
- **Iluro**, Oloroe (*Iluronenses*)
- **Lactora**, Lectoure (*Lactorates*)
- **Benearnum/Lascurreis**, Lescar (*Benearnenses*)
- **Lugdunum Convenarum**, Saint-Bertrand-de-Comminges (*Convenae*)
- **Turba**, Aturbe (*Bigerriones*)

Novempopulaniak, Caesar-en Akitania<sup>11</sup> luzatu zuen eta aitzinetik itxuratu zuen Baskonia izango zena. Bederatzitik hamabi populueta bilakatzeko hori, *Aquae Tarbellicae* eta *Boios* zibitateetatik bereizi izan ziren *Iluronenses*, *Benearnenses* eta *Vasates* azal daiteke. Hor dago, hain zuzen ere Gaskoinian, Ipar Euskal Herrian, Nafarroa eta Aragoi Garaietan kokatu behar den gaurko Euskaldu eta Gaskoien seaska etniko, kultural eta linguistikoa. Esan beharrekoa da Gaskoia, Euskaldunen lehengusuak direla<sup>12</sup>. Azpimarratu behar da biak, herri bakarra gisa izan zirela aipatuta, XI. mendera arte. Bi hizkuntzen bereizketak banatu zituen Basko-Akitaniar erromanizatuak aurreuskerara erabiltzen jarraitu zuten Basko-Akitaniarrendandik. Jatorrizko Akitania, hego Pirinioetan dagoen Baskoien lurralde osoa bezala, gaur egungo euskal ezaugarrien seaska kultural eta linguistikoa<sup>13</sup> da. Badirudi, gero eta ziurragoa, Akitaniarrak eta Baskoia, etnikoki eta baita linguistikoki ere, ahaide hurbil hurbilak zirela.

Novempopulaniaren garaia, bederlatzi edo hamabi populuen azken « erromano » unea izan zen. Erromanizazioa, era desberdinez hedatu zen. Hiri guztiak ziren Burdigala, Tolosa, Elimberri edo Lugdunum Convenarumetik<sup>14</sup>, adibidez. Lehenik, probintzia zeharkatzen zuten bideek kanpoko eraginak sartarazi zituzten Novempopulanian, sortzen ari ziren merkataritza harremanen bitartez. Mendebaldeko eskualdeari dagokionez, hain zuzen ere, Bordeletik Astorgara zihoan bidea zen, iparraldetik hegoaldera. Hala ere, merkataritza eta komunikabideak, mendebaldetik ekialdera ziren nagusiak, sortaldeko Novempopulania Galia Narbonensis eta Mediterraneoarekin lotzen zituztenak. Ozeanoren ertzak, harreman horietatik at geratu ziren, gutxi gora behera. Seviac eta Montmaurinen dauden villaek harreman horiek frogatzen dituzte. Hizkuntzaren aldaketak eta asimilazioak, hiri eta goi mailako jedearen bitartez, hiritar nahiz baseritar aberatsen artean hedatu ziren. Laburtzeko, gizartea menperatzen duen eredu kulturala, pixkanaka nagusitzen da.

<sup>11</sup> Egiazko Akitania, Pirinioen bi aldeetan dago, gaurko Gipuzkoa eta Nafarroaren zati batzuk barruan direlako.

<sup>12</sup> Baliteke lehenago aipatu dugun ekuazio hori, hain segur, horrelakoa izatea : Akitaniarrak+Baskoia = egungo Euskaldun eta Gaskoia.

<sup>13</sup> Halere baskoitze berantiarra, gaztelaniaz *vasconización tardía* deitua, ez da oso sinesgarria. Teori honen arabera Akitaniarrek, aurreuskerara mintzatzen zirenek, hegoalde eta hegomendebaldera migratu zuten, Akitania-Novempopulaniatik (gaurko Gaskoinia eta Ipar Euskal Herria), batez ere VI. eta VII. mendeetan. Pirinioz harandiko Baskoiekin batera, Beronak (Errioxa, Araba eta Nafarroaren zati bat), Autrigoiak (Asón eta Nerbioi ibaien artean), Bizkaiko Karistiarrak eta Gipuzkoako Barduliarrak (Deba eta Bidasoaren ibarretan izan ezik, Aurreeuskaldunak edo, beharbada, Akitaniarrez jendeztatuak). Populu horiek, Indoeuroparrak ziratekeen eta ez Aurreeuskaldunak. Teori horrek, Frantzia erabilita beste teori antzekoa du, hau da Baskoien inbasioak Novempopulanian. Inbasio haiek, Baskonia ziteroreko baskoitzearen etorkia lirateke (Gaskoinian eta baita Euskal Herrian ere). Alta bada, bi teori horiek baliogabetzen diote elkarri. Izan ere, nola VI. eta VII. mendeko Baskoiek, Novempopulania baskoitze egingo zuteen, Akitaniarrak Pirinioen hegoalderantz migratzen ziren garai berean eta hango herriak baskoitzen zituzten bitartean. Buru buztanik gabekoa da guztiz.

<sup>14</sup> Schmidt 1978, 319-326. orrialdeetan.

Badakigu gaur Ebro eta Garonaren arteko herriak, gisako mintzaira erabiltzen zutenak, erromanizazioaren aurkako jarrera izan zutela<sup>15</sup>. M. Gomez Moreno-k eta A. Tovar-ek egindako ikerketen arabera, hizkuntzalariak bat etortzen dira akitaniera, edo protoeuskera ez zen iberiera bezalakoa. Teori hori onartua izaten zen Humboldt-ek idatzi zuenetik, 1821. urtean<sup>16</sup>. Berrogeita hamar urte geroago Luchoire-k hartu zuena<sup>17</sup>. Kultural, gizarte eta hizkuntza trukatzeko trinkoak izan ziren, noski, bi talde etnikoen artean, baina desberdinak ziren<sup>18</sup>. Gavel-i dagokionaz, ez da batere ziur euskera mintzaira iberikoa zenik, hizkuntza piriniotarraren hatza baizik, Iberiarren etorria baino lehen sortua eta iberikoen eragin handiak izan zituena<sup>19</sup>. Baldinger-en iritzia ere horrela da. Haren ustez, Novempopulania erromanizatua zen jadanik germaniar inbasioak aurretik. Etnikoki, Euskaldunak eta Iberiarrak bestelakoak zirela idatzi zuen, lehenak benetako herritar aurreiberiarrak zirela esanez eta bazegoela lotura bat euskera eta antzinako Akitanoen hizkuntzaren artean, gaskoieraren egiazko substratua delako<sup>20</sup>. Latinez *-anum* edo galo-erromanikoz *-acum* atzizkiak daramatzaten toki izenen banaketak eta dentsitateak erakusten digute «*erromatar kolonizazioaren hedadura eta intentsitatea*<sup>21</sup>». Aitzitik, *-osse, -ous, -ost, -oz* edo *-ués* atzizkiak hartzen dituzten toponimoek «*herritarren erresistentzia indartsua*» baieztatzen dute<sup>22</sup>. Akitaniarren dialektoak eta latina sinbiosi eder batean bizi izan ziren zenbait mendez<sup>23</sup>. Horri buruz, hona Baldinger-ek idatzitakoa: «*Antzinako Akitania, oso berandu izan zen erromanizatua eta aurreerromano edo aurrezeltiko hizkuntzak luzez iraun zuen*»<sup>24</sup>. Akitania zaharra, Iberiar penintsulari begira zegoen guztiz baina, erromanizazioa amaitu eta gero, Akitanian gertatutako aldaketak Galiarekin izan ziren lotuta, penintsularekin baino gehiago. Achille Luchoire-k, 1877. urtean, bere liburuaren azalean aurkezten zuen aipamen hori: «*Akitaniera, Pirinioen aldean, mintzaira iberiarra zen zalantzarik gabe, Galiako zeltaz errotik bestelakoa*»<sup>25</sup>.

Paradoxikoki, erromanizazioak erakusten digu Akitanoen etorki etnikoa, epigrafiaren bitartez. Hain zuzen jainko akitanoei eraiki zizkieten aldareak botu idatziekin eta hilarriak marmolazko plakekin zenduen ohoretan. Aldare horietan idatzitakoa ezagutzera ematen

<sup>15</sup> Laburpen garbia irakur daiteke, Gerhard Rohlfs-en 1977ko liburuaren lehen kapituluan.

<sup>16</sup> Luchoire 1877, III. eta IX. orrialdeetan.

<sup>17</sup> Luchoire 1877, 2. eta 3. orrialdeetan, Luchoire 1879, 1-43. orrialdeetan.

<sup>18</sup> Gomez Moreno A., «*Sobre los iberos: El bronze de Ascoli*», *Homenaje a D. Ramon Menéndez Pidal*, III, Madrid, 1925. Tovar A., *El euskera y sus parientes*, Madrid, 1959. Bähr G., «*Baskisch und Iberisch*», *Eusko Ikaskuntza*, T II, 1948.

<sup>19</sup> Gavel 1936, 36-43 orrialdeetan.

<sup>20</sup> Baldinger 1958, 42.-43., 65., 280. orrialdeetan. Allières 1993 irakur daiteke ere bai. Euskaldunak=Akitaniarrak= Baskoiak=Gaskoiak ekuazioaren ikuspegi orokor ona ematen baitigu.

<sup>21</sup> Rohlfs 1977, 26. orrialdean.

<sup>22</sup> Rohlfs 1977, 32. orrialdean.

<sup>23</sup> Corominas J., «*Euskeraren biziraupena, Behe Erdi Arora arte*», *Estudis de toponimia catalana*, 1. liburukia, Bartzelona, 1965, 93-151 orrialdeetan.

<sup>24</sup> Baldinger 1958, 278. orrialdean. Artikulu berean, VI. edo VII. mendeak aipatzen ditu.

<sup>25</sup> Luchoire 1877, azaleko orrian, Littré-tik hartuta, *Histoire de la langue française*, II. tomoa.

dizkigu, onomastikaren bitartez, Akitanoen mintzaira « misteriozkoaren » porroskak<sup>26</sup>. Idazki horiek adierazten dute gaur egungo euskerarekin daukaten ahaidegoa, ondoko izenek irudikatzen duten bezala : *Andere, Sembexo, Belexenn, Aherbelste, Lurgorr*<sup>27</sup>.

Akitaniako bederatzi herrien erromanizazioaren aldirik garrantzitsuenetako bat, probintziaren giristinotzea da, dudarik gabe, IV. mendean gertatu zena. Aturan, adibidez, « Santa Kitaria-rena » deitzen den sarkofagoa, garai hartakoa da. Arkeologoen arabera, kristauen izatea frogatzen du hilobi horrek. Zidonio-ren lekukotasuna aintzat hartzen badugu, gotzain baten presentzia ondorioztatu daiteke, eta baita kidego giristino batena ere, 475. urtean Elimberrin, Lugdunum Convenarumen eta Cossion<sup>28</sup>. Beste zenbait tokitan bezala, giristinotasuna hirietan kokatu zen lehenik. Alabaina, erlisione honen hedatzea motelagoa izan zen baserrialdeetan. Erromaniko elize ugarien eraikuntzak, antzinako *villaen* tokietan aurkitzen ditugunak, kristautzea frogatzen du. Basabazterretan, alderantziz, baserritarrek (*pagani* deituak) erlisione berri honen aurkako ihardukitze kementsua erakutsi zuten<sup>29</sup>.

## Inbasioak

Basatien edo Barbaroen erasoek amaitu zuten erromatar garaia, baina ez erromanizazioa. Novempopulaniarren nortasuna ez zen asko ahulduta izan eta, nahiz eta Bisigodoak eta Frankoak etorri izan, Akitanoen burujabetasun pentsaera ez zen batere desagertu. Germaniarrek, kopuru nahiko urria izateagatik, ezin zuten Akitanoen nortasun etnikoa aldatu ezta bere germaniar zen hizkuntza bortxaz ezarri ere. Bisigodoak, Erromako Enperadorearen baimenarekin, Novempopulanian plantatu ziren, 418. urtean. Han geratu ziren Vouilléko galtzera arte, 507. urtean, non Frankoak garaituta izan ziren. Novempopulaniarrak ezin ziren moldatu beren nagusi berriekin eta ez zituzten haien zatiketa politiko ohikoak gustatu. Godonvald-en jazartzeak, 584. urtean gertatu zena, Estatu autonomoa sortzeko aukera eman zien Novempopulaniako Akitaniarrei, etengabeko pikatzeak amaitzekotan. Dena den, ez dago batere ziur errege frankoek egiazko kontrola izan zutenik Novempopulaniako herrien gainean.

## Baskoiak

Txilperiko lehenaren erregealdian (525-584) agertu ziren lehenengo aldiz, VI. mendearen amaieran. Gregorio Tourskoak aipatu zituen 581. eta 587. urteetan, Novempopulanian « kolpez » hedatu zirenean. Fredegario-k<sup>30</sup> herri eponimoa sagaratu zituen, 602. urtean,

---

<sup>26</sup> Atura eta Vielle-Tursaneko idazkunak ikusi behar dira (Carte Archéologique de la Gaule, 40., 49.-50. eta 159.-160. orrialdeetan). Inbentario ia osoa ikusi daiteke Luchaire-ren liburuan, 1879, 44.-96. orrialdeetan.

<sup>27</sup> *Andere*, gaur bezala ; *sem(b)e*, gaur bezala (izen txikigarria, agian); aker eta *beltz*, gaur bezala ; *akerbeltz*, gaur bezala (Euskal Herriko panteoiaren jainkoa) ; *lurgorri* edo *lurgor*, gaur bezala.

<sup>28</sup> Zidonio, *Epistula VII*, 6, 7, « Topographie chrétienne des agglomérations » liburuan aipatua, 391.-430. orrialdeetan.

<sup>29</sup> Hala izango da, garai erromanikora arte eta monasterio handien oldarera arte, lekaide zelto edo zeltoduntuek gidatuak, Irlandatik etorrita edo han moldatuak.

<sup>30</sup> "Fredegario-ren kronika", bilduma historiografikoa da, Goi Erdi Aroko Galian osaturik. *Kronika Unibertsala* deritzon generokoa. Munduaren sorkuntzatik 768ko urriaren 9ra arte (Karlomagno eta Karloman bere anaiaren erregetzearen ulean) bere bertsio luzeagoan.

Novempopulania Baskonia deitua izan zen lehen aldiz (629. urtea aipatzen da ere bai, izenaren agerraldia agertzeko). Egia esateko, ez dakigu gauza askorik Baskonian izandako Baskoien nagusitasunari buruz, VI. mendearen amaieratik IX. mendera arte. Badirudi bere botere politiko eta militarra hedatu zela Garonaraino. Baskonia ziterior, ibaiaren hegoaldean kokatuak ziren lurralde guztiak zeuzkan, Bordele eta Ageneko eskualde zatiak barne. 620. urtetik aurrera jarri ziren eta, dirudenez, Novempopulaniarrek oso ongi hartu zituzten Baskoi horiek eta ia berehala onartu zuten Baskoi izena. Pentsa daiteke nortasun akitaniar zaharra bizirik zela oraindik ere eta Iparraldekoek berriro bereganatu zutela nortasun hori. Ez zen gatazkarik izan, dirudenez, bertakoen partetik, baizik eta gelditzen zen tokiko akitano-erromatar aristokrazia nahastu zen baskoi buruzagiekin. Baskoi erreferentzia hori Pirinioen bi aldeetan bizi ziren herritarren gainean bermatzen zen eta antzinako Akitanoen herrialdearen etengabeko zatiketa amaitu ere. Pentsa daiteke akitaniar funts zaharrak, bere berezitasun eztabaidea zina berpiztu zuela. Ahaidetasun etniko horrek artzain eta sedentario, giristino eta jentil arteko talka mugatu zuen. Baina daukagun dokumentazio hain ahula izatearren, oso zaila da kanpotik etorri ziren berriak eta bertako herritarren substratu hala-holatsu erromanizatua bereiztea. Haatik, Luchaire-k 1877. urtean idatzi zuenaren arabera<sup>31</sup> eta zientzialarien kidegoak onarturik hizkuntzalari bihi batek ez duena ukatu gaur egunera arte, onetsi behar dugu « *Hegomendebaldeko Euskaldunen (guk Akitanoak izendatu nahiago ditugunak) hor izatea, 587. urteko Baskoien inbasioa baino zaharragoa da* ». Beraz, badago substratu linguistiko paleoeuskalduna Pirinioen bi aldeetan.

## **Feudal zatikatzea eta Baskoniako dukerriaren akabantza**

Novempopulaniaren ondokoa zen Baskoniako dukerriak, idazkiek argitu zuten garaian, gero eta zatikatze azkarragoa pairatu zuen, IX. mendean eta X. hasieran. Antxo VI.a Gilen, Baskoniako azken dukea, gizonetako oinordekorik gabe hil zen, 1032. urtean. Heriotza horren ondorioak, dukerriaren amaiera iragartzen zuten nahasmenduak izan ziren. Akitaniako Gilen-en hiltze ondoren, 1058. urtean, Gui Geoffroi bere anaia, jadanik Baskoniako dukea zena, Akitaniako dukea bilakatu zen, Gilen VI.a izenarekin. Hark, Poitou handiko lurretara eraman zuen Baskonia. Bernard II.a Tumapaler Armagnaceko kondearen galtzea, 1063. urtean, Baskoniaren amaiera izan zen. « *Batasun gisa, XI. mendean desagertzen da Baskonia*<sup>32</sup> ».

**Oharra :** lan hori, Auguste Longnon-ek (1844-1911) idatziriko lanei esker gehiengoz egina dago. Novempopulaniako eta Baskoniako antzinako elizbarrutien mapa historikoak eta kartularioak ere erabili ditugu. Zehaztu behar dena da diozesen mugak ez direla, sistematikoki, alegiazko diren Antzinaroko herri akitaniarrenekin gainezarrizkoak. Ondoko zedarri politiko eta administratiboak, aieru baliosak dira, XI. mendera arte. Feudalismo agertu zenean, mugarren azterketa gero eta korapilatsuagoa da. Izan ere, feudoen mugak oso aldakorrek bihurtu ziren, ondare arazoengatik, ezkontzak edo oinordekotzak bezalakoak, baita etengabeko lurralde galtze eta konkistengatik ere. Batez ere Baskoniako dukerriaren desagertze ondoren, 1063. urtean.

---

<sup>31</sup> Luchaire 1877, II. zatia, 52. orrialdeko oharra.


<sup>32</sup> Baldinger 1958, 284. orrialdean.



Hemen emandako mugarriak alegiazkoak direla oroitarazi behar da. Izan ere, zaila da Novempopulaniako herrien lurraldea nolakoa zen jakitea. Hala ere, ideia ona izan daiteke. Marra zehatza edukitzeko, udalerrien zedarriak daramatzaten mapak erabili ditugu. Herriz herriko marraztutako zedarriztatzea ematen dugu. Jatorrizko dokumentua, 1/100 000eko eskalan dago.

## Dokumentu gehigarriak

---



FLAMEN . ITEM  
 DVMVIR.QUAESTOR  
 PAGIQ.MAGISTER  
 VERVS.ADAVGVS  
 TVM.LEGATOMV  
 NEREFVNCTVS  
 PRONOVEMPOPTI  
 NVIT POPVLIS.SE  
 IVNGERE GALLOS  
 VRBE.REDV.X.GEN  
 NIOPAGI.HANC  
 DEDICAT.ARAM<sup>33</sup>

Hazparneko harria, K.o. II. mendearen amaiera edo III.aren hasiera (Hazparne, Lapurdi)

## Herriz herriko Novempopulaniako zedarriak

---

- **Gironda 33** : Le Porge, Le Temple, Lanton, Audenge, Marcheprime, Mios, Salles, Lugos, Belin (Beliet herria, 1974. urtean bakarrik ez zen Belin udalerrinari lotua).
- **Landak 40** : Mano, Argelouse, Sore.
- **Gironda 33** : Bourideys, Préchac, Uzeste, Le Nizan, Mazères, Langon, Toulence, Saint-Pierre-de-Mons, Saint-Pardon-de-Conques, Saint-Loubert, Caudrot, Sainte-Foy-la-Longue, Saint-Laurent-du-Bois, Saint-Félix-de-Foncaude, Saint-Sulpice-de-Pommiers, Saint-Brice, Daubèze, Frontenac, Lugasson, Bellefond, Jugazan, Rauzan, Saint-Aubin-de-Branne, Lugaïnac, Branne, Cabara, Saint-Jean-de-Blaïnac, Saint-Vincent-de-

<sup>33</sup> Ez hitzez hitzeko itzulpena : « *Flamine* (gurtza inperialaren apaiza), *du(u)mvir* (zibitate buru ziren bi magistratuen biltzarraren kidea), zerga biltzaile eta herrialdearen administratzaile, Verus, Augustorenganako (enperadorea) mandatu batekin igorria, bederatzi populua (Akitaniarrak) Galiarregandik bereziak izan daitezela lortu du. Hiritik (Erroma) itzultitakoan, herrialdeko Jainkoari eskaintzen dio aldare hori ».

Pertignas, Sainte-Florence, Civrac-sur-Dordogne, Saint-Pey-de-Castets, Mouliets-et-Villemartin, Flaujacgues, Juillac, Gensac, Massugas, Pellegrue, Esclottes (47), Sainte-Colombe-de-Duras (47), Dieulivol, Cours-de-Monségur, Taillecavat, Saint-Vivien-de-Monségur.

- **Lot eta Garona 47** : Saint-Géraud, Caubon-Saint-Sauveur, Castelnau-sur-Gupie, Mauvezin-sur-Gupie, Beaupuy, Sainte-Bazeille, Gaujac, Montpouillan, Fourques-sur-Garonne, Samazan, Bouglon, Grézet-Cavagnan, Labastide-Castel-Amouroux, Casteljaloux, Beauziac, Saint-Martin-Curton.
- **Gironda 33** : Saint-Michel-de-Castelnau, Lartigue, Giscos.
- **Landak 40** : Maillas, Losse, Lubbon, Arx.
- **Lot eta Garona 47** : Boussès, Sos, Sainte-Maure-de-Peyriac.
- **Gers 32** : Labarrère, Castelnau-d'Ausan, Caseneuve, Lagraulet-du-Gers, Lauraët, Mouchan, Valence-sur-Baïse, Maignaut-Tauzia, Saint-Puy, Roquepine, Blaziert, Marsolan, Lagarde, Laroque-Engalin, Berrac, Pouy-Roquelaure, Saint-Mézard, Pergain-Taillac, Sempesserre, Gimbrède, Sistèls (82), Saint-Antoine.
- **Tarn eta Garona 82** : Auvillar, Saint-Michel, Merles, Saint-Nicolas-de-la-Grave, Caumont, Saint-Arroumex, Lavit, Maumusson.
- **Gers 32** : Castéron, Gaudonville, Tournecoupe, Estramiac, Homps, Montfort, Labrihe, Sérempuy, Mansempuy, Saint-Antonin, Saint-Sauvy, Sainte-Marie, Aubiet, Juilles, Saint-Caprais, Aurimont, Tirent-Pontéjac, Saramon, Mongauzy, Gaujac, Sabaillan, Cadeillan.
- **Garona Garaia 31** : Boissède, L'Isle-en-Dodon, Anan, Saint-Frajou, Fabas, Salerm, Saint-André, Boussan, Montoulieu, Alan, Le Fréchet, Mancieux, Roquefort-sur-Garonne, Ausseing.
- **Ariège 09** : Fabas, Tourtouse, Lasserre, Montardit, Contrazy, Montesquieu-Avantès, Lescure, Rimont, Montseron, Durban-sur-Arize, Allières, Labastide-de-Sérou, Cadarcet, Alzen, Montagagne, Sentenac-de-Sérou, Boussenac, Massat, Le Port, Aulus.
- **Arango harana.**
- **Nafarroako Foru Erkidegoa** : gaur egungo Nafarroako muturreko iparmendebaldea, Tarbelliarren lurraldean kokatua zegoen, Novempopulanian. Ondotik, *Aquae Tarbellicaeren* jatorrizko elizbarrutian, Baskoniako dukerrian eta, azkenean, Lapurdi-Baionako diozesan, XVI. mendearen amaiera arte. Beraz mugarría, Atlantikorantz alde batetik eta Mediterraneorantz beste aldetik doazen urak bereizten dituen mendi gaineak da. Udalerrí horiek dira : Luzaide, Baztan, Bertizarana, Donamaria, Oitz, Urrotz, Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra, Leitza, Areso, Goizueta eta Arano.
- **Gipuzkoa probintzia** : iparmendebaldeko Nafarroari buruzko egin ditugun oharrak, Gipuzkoako iparekialdeko osoari dagokionez baliagarriak dira ere. Urumeako ibarra, dukerriako muga zen, Donostia eta Hernani barne. Udalerrí horiek Baskonia ziteriorean zeuden : Hondarribia, Irun, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Errenteria et Astigarriaga.

## Novempopulaniako herrien herrialdeen barneko mugak

---

- **Aturenses** : **40** Bourriot-Bergonce, Saint-Gor, Vielle-Soubiran, Estigarde, Créon d'Armagnac, Lagrange. **32** Monclar-d'Armagnac, Marguestau, Ayzieu, Lias-d'Armagnac, Estang, Castex, Montguilhem, Toujouse. **40** Hontanx, Lussagnet, Cazères-sur-Adour, Aire-sur-Adour, Ségos (32), Latrille, Miramont-Sensacq, Lauret, Pimbo, Lacajunte, Arboucave, Mant, Monségur, Morganx, Lacrabe, Labastide-Chalosse, Momuy, Cazalis, Brassempouy, Saint-Cricq-Chalosse, Maylis, Larbey, Saint-Aubin, Mugron, Nerbis, Toulouzette, Cauna, Lamothe, Le Leuy, Campagne, Saint-Martin-d'Oney, Geloux, Garein, Vert, Labrit, Le Sen, Lencouacq, Retjons.



Aturako Santa Kitaria eliza  
(Atura/Aturri)

- **Auscii** : **32** Maignaut-Tauzia, Saint-Puy, Roquepine, Mas-d'Auvignon, Lamothe-Goas, Paulhac, Fleurance, Lalanne, Pis, Puycasquier, Augnac, Saint-Antonin, Saint-Sauvy, Sainte-Marie, Aubiet, Juilles, Saint-Caprais, Bédéchan, Aurimont, Tirent-Pompéjac, Saramon, Mongauzy, Gaujac, Sabaillan, Cadeillan, Tournan, Boissède (31), Molas (31), Gaujan, Monbardon, Sarcos, Saint-Blancard, Lalanne-Arqué, Mont-d'Astarac. **65** Thermes-Magnoac, Villemur, Pouy, Monléon-Magnoac, Lassales, Monlong, Tajan, Réjaumont, Uglas, Recurt, Galan, Libaros, Bonnefont, Lustar, Tournous-Darré, Vidou, Lalanne-Trie, Lapeyre, Bernadets-Debat. **32** Castex, Miélan, Aux-Aussat, Troncens, Malabat, Cazaux-Villecomtal, Sembouès, Saint-Justin, Marciac, Juillac, Beaumarchés, Lasserrade, Pouydraguin, Aignan, Lupiac, Belmont, Préneron, Roquebrune, Caillavet, Biran, Jégun, Bonas, Castéra-Verduzan, Ayguetinte.



Auch  
(Elimberri-Auscii)

- **Benearnenses** : **64** Lanepalaa, Laà-et-Mondrans, Biron, Castétis, Balansun, Mesplède, Lacadée, Labeyrie. **40** Beyries, Castaignos-Souslens, Argelos, Poudenx, Peyre, Monget, Malaussane, Philondenx. **64** Poursiugues-Boucoue, Coublucq, Boueilh-Boueilho-Lasque, Garlin, Moncla, Portet, Diusse, Aubous, Aydie, Arrosès, Crouzeilles, Bétracq, Monpezat, Moncaup, Bassillon-Vauzé, Luc-Armou, Peyrelongue-Abos, Momy, Sèdze-Maubecq, Bédeille, Lombardia, Saubole, Eslourenties-Daban, Lourenties, Espoey, Livron, Barzun, Bénéjacq, Labatmale, Saint-Vincent, Montaut, Lestelle-Bétharram, Asson.



Lescar  
(Benearnum-Lascurris)

- **Bigerri** : **65** Arrens-Marsous, Arbéost, Ferrières, Saint-Pé-de-Bigorre, Lourdes, Pontacq (64), Luquet, Gardères, Séron, Escaunets, Villeneuve-près-Béarn, **64** Maure, Bentayou, Lucarré. **65** Vidouze, Lahite-Toupière, Sombrun, Lascazères, Hagedet, Soublecause, Madiran, Saint-Lanne. **32** Maumusson-Laguian, Cannet, Cahuzac-sur-Adour, Izotges, Tasque, Plaisance, Saint-Aunix-Lengros, Ladevèze-Rivière, Armentieux. **65** Auriébat, Sauveterre, Monfaucon, Buzon. **32** Beccas, Haget, Betplan, Laguian-Mazous, Estampes. **65** Estampures, Mazerolles, Antin, Lubret-Saint-Luc, Luby-Betmont, Villembits, Bugard, Orioux, Montastruc, Bonrepos, Galez, Clarens, Lannemezan, Avezac-Prat-Lahitte, Labastide, Esparros, Campan, Bagnères-de-Bigorre, Barèges, Luz-Saint-Sauveur, Gèdre, Aragoiko mugarria.



Tarbes, Antzinaroko *villae* baten zimenduak  
(Turba)

- **Boiates<sup>34</sup>: 33** Le Porge (luzaz Le Porge-en-Buch deitua), Le Temple (Longnon eta Aufan-en arabera). Uko egiten diogu Lacanau Boiateen lurraldean sartzeari. Izan ere, herri hori askoz ere geroago izan zen lotua eskualde horri eta ez Antzinaroan. Lanton, Audenge, Marcheprime, Biganos, Mios, Salles (Salles-en-Buch ere deitua. Salomacum ez zela ematen du). Lugos, Belin (baina ez Beliet). **40** Mano, Argelouse, Sore, Trensacq, Sabres, Solférino, Escource, Sindères (beharbada Coaequosa, Tarbelliarren mugarrin), Onesse-et-Laharie, Lévignacq, Uza, Saint-Julien-en-Born.



Eyreko delta, Lamotheetik hurbil  
(Boios)

- **Conсорanni : 09** Fabas, Tourtouse, Lasserre, Montardit, Contrazy, Montesquieu-Avantès, Lescure, Rimont, Montseron, Durban-sur-Arize, Allières, Labastide-de-Sérou, Cadarcet, Alzen, Montagagne, Sentenac-de-Sérou, Boussenac, Massat, Le Port, Aulus-les-Bains, Ustou, Couflens, Lez, Les Bordes-sur-Lez, Bonac-Irazein, Sentein, Antras, Saint-Lary, Galey, Saint-Jean-du-Castillonais, Buzan, Balaguères, Cazavet, Prat-et-Bonrepaux, Mercenac, Bagert, Cérizols.



Saint-Lizier-en-Couserans eta bere harresiak  
(Conсорanni Sanctus Glycerius)

<sup>34</sup> Boiateen jatorrizko zibitatea, itsasadarra izan zen ertzeetan, gaur Arcachoneko badia dena, kokatua zegoen. Eyreko behe ibarran hain zuzen ere. Itsasaldeko ibai txiki hori, *Signatis* izenpean agertzen zen Antzinaroan. Badirudi Novempopulaniako iparmendebaldeko populurik boteretsuena zela. Bere eragina, hegoalderantz emendatu zuen pixkanaka eta gaur egungo Borneko Herria hartu zuen oso. Itxura guzien arabera, Eyreko ibar osoa kontrolatu zuen, bere abantailan zelako. Cocosate gehienak, Boiateen alegiazko eta iragankor antzinako elizbarrutian barne hartua izan ziren. Herri akitaniar gehienak, beren auzokoak ziren beste populu indartsuagoak menperatuta izaten ohi ziren. Onartzen dugu Longnon-ek erakusten duen *Pagus Boiorum* zabaldua, gure mapan agertzen dena. Antzinaroaren amaieran edo Erdi Aroaren hasieran Bordele, Bazas eta Akizeko diozesak partekatu ziren ustezko jatorrizko elizbarruti hori. Antzinako Erregimenan ikusten zen erlisioneazko zatiketa konplexutasuna, puskatze horren ondoria omen da.

- **Convenae : 31** Mirambeau, l'Isle-en-Dodon, Puymaurin, Nénigan, Lunax, Péguilhan, Boulogne-sur-Gesse, Gensac, Saint-Loup-en-Comminges, Bazordan (65), Boudrac, Arné (65), Pinas, Cantaous, Tuzaguet, Escala, Labarthe-de-Neste, Izaux, Lortet, Hèches, Beyrède-Jumet, Aspin, Arreau, Ancizan, Aulon, Vielle-Aure, Piau-Engaly, Aragnouet, Tramezaygues, Saint-Lary-Soulan, Génos, Loudenvielle, Oô, Cazaux-de-Larboust, Castillon-de-Larboust, Saint-Aventin, Bagnères-de-Luchon, Arango arana (Lleida probintzia), Melles, Boutx, Razecueillé, Millas, Herran, Fougaron, Urau, Franczal, Saleich, Castagnède, His, Touille, Betchat (09), Escoulis, Belbèze-en-Comminges, Ausseing, Roquefort-sur-Garonne, Mancieux, Le Fréchet, Alan, Terrebase, Samouillan, Benque, Boussan, Saint-André, Fabas, Saint-Frajou.



Saint-Bertrand-de-Comminges  
(Lugdunum Convenarum)

- **Elusates : 32** Valence-sur-Baïse, Beaucaire-sur-Baïse, Bezolles, Rozès, Saint-Paul-sur-Baïse, Saint-Jean-Poutge, Vic-Fézensac, Castillon-Debat, Dému, Margouët-Meymes, Avéron-Bergelle, Sabazan, Bouzon-Gellenave, Fustérouau, Termes-d'Armagnac, Riscle, Viella, Verlus, Projan, Sarron (40), Saint-Agnet (40), Lannux, Bernède, Barcelonne-du-Gers, Vergoignan, Le Houga, Mormès, Monlezun-d'Armagnac, Maupas, Panjas, Salles-d'Armagnac, Bourrouillan, Campagne-d'Armagnac, Larée, Cazaubon. **40** Gabarret, Herré, Losse, Lubbon. **47** Boussès, Arx, Sos, Sainte-Maure-de-Peyriac. **32** Labarrère, Castelnau-d'Auzan, Cazeneuve, Lagraulet-de-Gers, Lauraët, Mouchan.



Eauze  
(Elusa)

- **Iluronenses : 64** L'Hôpital d'Orion, Orion, Orriule, Castetbon, Audaux, Bugnein, Bastanès, Méritein, Navarrenx, Ogenne-Camptort, Lucq-de-Béarn, Cardesse, Oloron, Goès, Estialescq, Lasseube, Lacomme, Aubertin, Lasseubetat, Buzy, Rébénacq, Sévignacq, Meyracq, Lys, Louvie-Juzon, Louvie-Soubiron, Béost, Eaux-Bonnes, Laruns, Urdos, Borce, Accous, Lescun, Léés-Athas, Arette, Lanne-en-Barétous, Aramits, Esquiule, Géronce, Saint-Goin, Geüs-d'Oloron, Préchacq-Josbaig, Gurs, Sus, Angous, Charre, Lichos, Nabas, Espiute, Saint-Gladie-Arrive-Munein, Guinarthe-Parenties, Autevielle-Saint-Martin-Bideren, Abitain, Oraas, Sauveterre-de-Béarn, Burgaronne.



Oloron  
(Iluro)

- **Lactorates : 32** Pouy-Roquelaure, Saint-Mézard, Pergain-Taillac, Sempesserre, Gimbrède, Sistès (82), Miradoux, Flamarens, Saint-Antoine. **82** Auvillar, Saint-Michel, Merles, Saint-Nicolas-de-la-Grave, Caumont, Saint-Arroumex, Lavit, Maumusson, Castéron, Gaudonville, Tournecoupe, Estramiac, Homps, Montfort, Labrihe, Sérempuy, Mansempuy, Maravat, Saint-Brés, Taybosc, Céran, Brugnens, Urdens, Castelnau d'Arbieu, Lectoure, Terraube, Blaziert, Marsolan, Lagarde, Laroque-Engalin, Berrac.



Lectoure  
(Lactora)

- **Tarbelli** : **40** Lit-et-Mixe, Linxe, Lesperon, Garrosse, Morcenx, Arjuzanx, Arengosse, Luglon, Ygos, Ousse-Suzan, Saint-Yaguen, Meilhan, Souprosse, Gouts, Laurède, Lourquen, Lahosse, Caupenne, Bergouey, Gaujacq, Amou, Nassiet, Marpaps. **64** Sault-de-Navailles, Sallespisse, Orthez, Salles-Montgiscard, Salies-de-Béarn, Castagnède, Escos, Labastide-Villefranche. Ipar Euskal Herriko hiru probintziak. Nafarroako Foru Erkidegoko iparmendebalde, Belateko mendateko iparraldean, Atlantikorantz edo Ebrorantz doazen urak bereizten ditu marrak. Gipuzkoako ekialdea, hau da Urumeko ibarrako sortaldea, Donostiatik Hernanira. Hondarribia, Irun, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Errenteria eta Astigarrriaga barne.




Akizeko galo-erromaniko harresiak  
(Aquae Tarbellicae)

- **Vasates** : **40** Luxey, Callen. **33** Bourideys, Préchac, Uzeste, Mazères, Langon, Toulence, Saint-Pierre-de-Mons, Saint-Pardon-de-Conques, Saint-Loubert, Caudrot, Sainte-Foy-la-longue, Saint-Laurent-du-Bois, Saint-Félix-de-Foncaude, Saint-Sulpice-de-Pommiers, Saint-Brice, Daubèze, Frontenac, Lugasson, Bellefond, Jugazan, Rauzan, Saint-Aubin-de-Branne, Lugaïnac, Branne, Cabara, Saint-Vincent-de-Pertignas, Sainte-Florence, Civrac-sur-Dordogne, Saint-Pey-de-Castets, Mouliets-et-Villemartin, Flaujagues, Juillac, Gensac, Massugas, Pellegrue. **47** Esclottes, Sainte-Colombe-de-Duras. **33** Dieulivol, Cours-de-Monségur, Taillecat, Saint-Vivien-de-Monségur. **47** Saint-Géraud, Castelnaud-sur-Gupie, Caubon-Saint-Sauveur, Mauvezin-sur-Gupie, Beupuy, Gaujan, Montpouillan, Fourques-sur-Garonne, Samazan, Bouglon, Grézet-Cavagnan, Labastide-Castel-Amouroux, Casteljaloux, Beauziac, Saint-Martin-Curton. **33** Saint-Michel-de-Castelnaud, Lartigue, Giscos, Maillas (40), Captieux, Lucmau.



Bazas  
(Cossio)





Novempopulaniako mapa. Philippe Lartigue-k marraztua

## Mapan agertzen diren toki izenak

---

**GIRONDA 33** Alingo (Langon), Boios (Lamothe-Biganos), Burdigala (Bordeaux), Condate (Libourne), Cossio (Bazas), Lucaniacus (Lugaignac), Reontium (Rions), Salomacum (Mons inguruan, Belinen), Sirio (Cérons). **LANDAK 40** Aquae Tarbellicae (Dax), Atura (Aire-sur-Adour), Coaequosa (Sindères), Losa (Sanguinet), Mosconnum (Mixe), Oscineum (Losse), Segosa (Saint-Paul-en-Born), Tellonum (Liposthey). **PIRINIO ATLANTIKOAK 64** Aspalluga (Bedous), Forum Ligneum (Urdos), Iluro (Oloron), Imum Pyrenœum (Saint-Jean-Pied-de-Port), Lapurdum (Bayonne), Lascurris-Benearnum (Lescar). **LOT ETA GARONA 47** Aginum (Agen), Fines (Calezun, Vianne), Sotium (Sos), Pompeiacum (Le Mas d'Agenais), Tres Arbores (à proximité de Cours-les-Bains (33) et d'Antagnac (47)). **TARN ETA GARONA 82** Cosa (Albias), Fines (Bressols) **GERS 32** Ad Sextum (Marsan, entre Montégut et Aubiet), Belsinum (Samaran), Besinum (Vic-Fézensac udalerrian), Cassinomagus (Gimont), Condomagos (Condom), Elimberri (Auch), Elusa (Eauze), Lactora (Lectoure), Sarralis (Sarrant), Vanesia (Saint-Jean-Poutge). **PIRINIO GARAIK 65** Aquae Convenarum (Capvern-les-Bains), Turba (Tarbes). **GARONA GARAIK 31** Aquae Siccae (Cazères), Calagorris (Saint-Martory), Ilixon (Bagnères-de-Luchon), Lugdunum Convenarum (Saint-Bertrand-de-Comminges), Tolosa (Toulouse). **ARIEGE 09** Consoranni Sanctus Glycerius (Saint-Lizier). **NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA** Pompaelo (Iruinea/Pamplona). **GIPUZKOA** Oiasso (Irun).

**IBAIEN IZENAK.** Signatis (Eyre), Garunna (Garona), Duranius (Dordoinia), Aturri/Aturrus (Aturri).

## Erreferentzia bibliografikoak

---

**Allières, Jacques.** De l'aquitain au basque. *La langue basque parmi les autres, influences et comparaisons*. Actes du colloque international de l'URA 1055 du C.N.R.S. réunis par Jean-Baptiste Orpustan. Baigorri : Izpegi, 59.-70. orrialdeetan, 1993

**Baldinger, Kurt.** La position du gascon entre la Galloromania et l'Ibéroromania. *Revue de linguistique romane n° 22*, 241.-292. orrialdeetan, 1958.

**Etzegorri, Philippe.** *Biarnoko Euskaldunak, historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean*, 2012.

**Gavel, Henri.** Remarques sur les substrats ibériques, réels ou supposés, dans la phonétique du gascon et de l'espagnol. *Revue de Linguistique Romane XII*, 36.-43. orrialdeetan, 1936.

**Longnon Auguste.** *Atlas historique de la France depuis César jusqu'à nos jours*, Hachette, 1885.

**Luchaire, Achille.** *Les origines linguistiques de l'Aquitaine*. Pau : Imprimerie et lithographie Véronèse, 1877.

**Luchaire, Achille.** *Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*. Paris : Maisonneuve, 1879.

**Orpustan, Jean-Baptiste.** *L'onomastique basque dans le « Cartulaire de Dax » (latinezko idazkiak, XI., XII. eta XIII. mendekoak)*.

**Rohlf, Gerhard.** *Le gascon: études de philologie pyrénéenne*. Tübingen, Pau : Max Niemeyer Verlag, Marrimpouey, 1977.

**Schmidt, C.** Quelques particularités du vocabulaire roman de la Gascogne. *Hommage à Jean Séguy II, Via Domitia tome XIV*, 319.-326. orrialdeetan, 1978.

**Zink, Anne.** *Pays ou circonscriptions, les collectivités territoriales de la France du Sud-Ouest*. Publications de la Sorbonne, Paris, 2000.